



**FERMIN ERBITI
ZABALTZA**
KAZETARIA

Zalantzari gorazarre

Bizitzan aitzina egin ahala, burugorrenak ere lezio pare bat ikasiko du neke handirik gabe. Bata, denboraren joan-etorria aldakorra dela oso. Haurtzaroko erritmo motela gaztetan azkartzen hasi eta, bat-batean, berrogei urteren bueltan, sekulako abiadura hartzen du, guztiok ikaratu eta zorabiatzeko modukoa. Adiskide batek argi esan zidan lehengo egunean, kafetxo bat hartzen ari ginela:

– Ikaraturik nago denborak hartu duen martxarekin. Hau ziztu bizian doa, hobe denbora behar bezala aprobetxatzen badugu.

Hori entzun eta Anjel Lertxundiri kendutako esaldi bat gogoratu nuen: “Bizitza zukutu, limoi bat zukutzen den bezala”. Hortxe dago, zuzen eta zehatz laburbilduta, betidanik dakiguna: egunean egunekoa bizi behar dela, atzera eta aurrera begiratu gabe. *Carpe diem*. Kontua da teoria jakiteak ez duela deus bermatzen, dakiguna ikastea oso zaila izaten baita.

Gatozen adinak oparitzen digun beste ikasbidearekin: heldutasunak ez duela jakinduria handitzen. Hemezortzi urtetan argi izaten dugu dena. Munduko arazoak, are gehiago gure *mundutxo*ak, *ti-ta* konponduko genituzke. Berrogeita hamar urtetan, berri, egia *berdadero*-en

zerrenda murriztu eta zalantza bizitzaren bidaide bihurtzen da. Niri gero eta gehiagotan gertatzen zait: irrati edo telebistako eztabaida baten lekuko izanik, hasieran hizlari baten iritzia entzun eta “guztiz ados” pentsatuko dut. Kontua da ondorengoak kontrakoa esan, eta harekin ere konforme askotan.

Hori batere normala ez zelakoan, kezkatzen hasia nintzen. Duela gutxi, ordea, lasaitu ederra hartu zuen liburu bati esker: Victoria Campsen *Elogio de la duda* (*Zalantzari gorazarre*), hain zuzen. Hona hemen filosofo katalanaren tesia laburbildurik: gizon-emakumeak mugatuak gara, gutxi dakigu. Beraz, zalantza oso kontu naturala da. Are gehiago: kontuz ibili den-dena argi eta garbi dutenekin.

Begi-bistakoa da: politikari eta kazetari gutxi irakurri dute liburua. Bestela, agian, mundu honetakoak direla erakutsiko ligukete, noizean behin bada ere. Irratietan tertuliak ematen hasi ziren garaikoa da hurrengo pasadizoa. Iñaki Gabilondok egun haietan pil-pilean zegoen gai bati buruz galdetu dio Joaquín Estefanía kazetariari. Eta hark honela erantzun donostiarrari: “Ideiarik ere ez dut galdetu didazun gaiaz”. Geroztik horrelakorik entzun al duzue kazetari edo politikarien ahotik? ●



**CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA**

Maitasunaz eta zuloez

Hamabost egun egin ditut Euskal Herrian barrena. Izpegin hasi eta Natxitan bukatu. Inoiz baino ordu gehiago egin ditut bakarrik, autoan, musika entzuten. Spotifyk oroitarazi dit behin eta berriro entzun ditudala Willis Drummond *Lehentasuna* eta Anariren *Epilogo*; Cigarettes after sexen *Falling in Love* eta The Retrosetesen *You got the love* kantaren bertsio bat. Maitasuna eta hutsunea zeinen lotuta dauden pentsatu dut, gauza bera ez ote diren tarteka, ez al da maitatzea gure baitako zuloa estaltzeko modurik errazena. Andoaingo aparkaleku batean

nago, Bilatzailean Lorelei idatzi eta due-la hoge urteko bi disko atera dira. Hitzekin akordatzeko naizela egiaztatu dut. Kontzerturako sarrerak poltsan daramatzat. *Bada hiri gorri bat* kantatzen genuen garai batean. Poema prebisibleak idazten genituen, txarrak ez esateagatik. Orduan ere maitasunaz eta hutsunez idazten genuen. Gure obsesioak ez dira aldatu. Gure lagunak ere ez. Ahotso aldatu zaiola esateko deitu dit Asier Serranok. “Ez naiz akordatzeko nolakoa zenuen ahotso orduan”, esan diot. Bakarrik akordatzeko naiz tristurarako joera gogaikarri bat genuela. Orain ere bai. ●